

EUSKALTZAINDIA. AGERIKO EKITALDIA

2010-09-24

Arratsaldeon,

Gure ikastolak, Nafarroa Oinez 2010k, Euskaltzaindiarekin batera antolatzen duen ekitaldi honetara ongi etorriak izan zaitezte.

Hiruzpalau aste besterik ez direnean falta Nafarroa Oinez 2010a ospatzeko atsegin handiz hartzen ditugu gaurko gonbidatuak. Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiko ordezkariak gurekin izatea eta baita ere ikastoletako ordezkariak, familia eta bestelakoak, ongi-etorriak denak.

Nafarroa Oinezak aurten helburu bikoitza duela esan daiteke, asko laburbilduz. Ikastolak 40 urte bete ditu aurten eta hasiera-hasieratik dokumentazio eta promozio ezberdinetan batxilergoa sortzearen ideia gure kooperatibaren nahia izan da. Arrazoi ezberdinak direla eta, beste lehentasun batzuei ekin behar izan diogu iraganean eta orain momentua iritsi dela uste dugu.

Hauxe da, beraz, helburu zehatza: batxilergoa sortzea, 16-18 adin tarte horretan ere ikasleek ikastolan ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten; aukera hau ez da bakarrik guretzat izango; beste ikastola eta eskoletako ikasleriarentzat ere irekia izanen da.

Bigarrenik, proiektu zehatz honetatik haratago doan helburua du Nafarroa Oinez festak: gizartean eragin nahi dugu, euskararen alde. Euskara geletatik atera eta kalean erabilia izatea. Euskeraz bizi nahi dugu. 1991ko Nafarroa Oineza *Euskeraz bizi* lemapean antolatu genuen orain dela 19 urte, Jose Luis Gorostidiren zuzendaritzapean, eta oraindik ere hauxe jarraitzen du gure ardatza izaten. Euskara ardatz duen proiektu eleanitza da gurea. Mundu bat da ikastola mundura begira...

Munduz mundu, mendez mende esamoldearekin EUSKARAK KULTUR ONDARE GISA DUEN BALIOA azpimarratu nahi izan dugu, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

Munduz mundu esamoldearekin gure identitate propioa izatea, gure kasuan euskalduna, eta mundura zabalik egotea erabat bateragarria direla adierazi nahi dugu.

Eta testuinguru honetan kokatzen dugu ere gaurko ekitaldia:

3 hizlari ditugu:

- Patxi Salaberri euskaltzaina eta, ikastolako guraso ohia, Iruñerriko euskararen ezaugarrietaz arituko da.
- Jarraian Patxi Zabaletak hartuko du hitza eta hil berri den Jorge Cortes Izal euskaltzalearen ibilbideaz hitz egingo du., bere ibilbide berritzaileaz arituko da.
- Momentu honetan **Ikastolako abesbatzak** *Nire herriko neskatxa maite* kanta interpretatuko du.

- Ondoren, Iñaki Etxezarreta jaunak, ikastolen izenean, **“IKASTOLEN MUGIMENDUA, DABILEN HERRIA”** liburuaren gorabeheren berri emango digu.
- Jarraian **“Eperrak”** izeneko kanta ospetsuaz gozatzeko aukera izango dugu eta, azkenik, agurra **Andres Urrutia euskaltzainburuarena** izango da.

URRIAREN 17AN, EUSKARAREN ALDE, DANOK ATARRABIARA!

Iñaki Erroz
Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria